

B

BARREN

TOKIKOM

**Makina-erremintaren
mendeurrena**





OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higiena eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOJIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- BERRIAI**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzua

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
- + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, es-triak)

Osasunerako ariketa agin-dua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-ka (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628



ETIEM
PARA
LETE

LETE

Done Frantzisko 36 - Elgoibar



TRAJEAK
ALKANDORAK
GORBATAK
GERRIKOAK
ZAPATAK

TRAJE PROMOZIOA

-20%

Udaberri
Uda
Kolekzioa



Angel Ugarteburu

Azken egunotan entzun eta irakurritako berri batzuk komentatzea nahikoa izango dok txanda honen zorra kitatzeko.

Bai hik eta bai nik, gure bizitzako jardunetan izandako kezkarakin zuzen lotzen diren berriak dituk, Andres.

Nafarroan euskarak bizi duen salbuespeneko egoeraz kezkatuak gauden honetan, hara non irakurtzen dugun Araban %4a baino ez dela euskararen batz besteko erabilera. Jakin arren, bistan jak, gure hizkuntzaz atxikimendu eskasa jaukagula. Folklore mailan geratzen dok funtsezko izan beharko lukeena. Apaingarri huts. Euskara ardatz duen proiekturik ez dagoen seinale. Arabarena adibide bat baino ez dok, zorritzarrez. Hurrerago ere baja gozak lotsakizunak.

“Euskara eta euskaraz gozatzen irakatsiko nieke berriz hasiko banintz”

Gazien artean gozoak ere badituk, zorionez. Noiznahi irakurri, ikusi eta entzuten jitsuak ikasle izandakoen lanak eta jardunak. Gure BARRENen idazten dutenez gain, asko dituk euskal irratí-telebistan dihardutenak. Kazetaritza idatzian ere berdin. Bertsolaritzan nabarmendu direnak ere bai, bizpahiru; hire alaba tartean. Unibertsitate, institutu, euskaltegi zein ikastoletako irakasle dituk hainbat ikasle-ohi. Idazletzat har daitezkeenak ere ez gutxi. Aste honetako berrietan irakurria dok adibide garbia, ezer asmatzen ibili beharrik barik. Jasone Osoro Euskal Idazleen Elkarteko buru izendatu dutela. Danele Sarriguartek bere lehen eleberria eman duela argitara. Zer edo zer ondo egin genduan, euskaraz gozatuz bizi daitezen, Andres.

Gozatu, hortxe jagok koxka. Euskara eta euskaraz gozatzen irakatsiko nieke berriz hasiko banintz. Horretan egin ete joagu huts?



Andres Alberdi

Hire lanaren hasieran eta bukaeran, betiko kezak eta mamuak zekuskiat ortzi-mugan, Angel. Begi-bistan uzten duk ezinegonaren horzkada. Eskerrak pozak eta gogobetetzak ere aipatzen dituan (eta ez nolanhikoak gainera) eta gozamenaren ferekak ere ukitzen hauen. Eskerrak!

Gurea ez duk Hollywood. Gurean, film amerikarrek ez ditek tokirik. Ai haietan ageri diren gidoi, dekoratu, jantzi, atrezzo, bikoizketa eta abarrak gurean posible balira! Ziur prestidigitadorearena egingo genukeela eta eternitatea erosiko geniokeela euskarari eta Euskal Herriari!

Baina errealtatea beti duk gordina eta burugogorra. Herri txikia gaituk, gutxi gaituk eta hizkuntza minorizatu bat zeukaagu bihotz-mingainetan. Hori duk gure patua.

Baikorrak izatea tokatzen zaiguk, ordea, gehiago baitago itxaropenetik etsimendutik baino. Ikuspuntu-kontua duk, jakina. Ez al haiz gogoratzen nolako Elgoibar geneukan duela berrogei urte? Aski duk, adibiderako, datu bat: orduan, euskaraz alfabetatuak esku bateko hatzekin konta zitezkean; gaur, makinatxo bat gehiago dituk, ezta? Aurrerapauso handia eman diagu.

“Baikorrak izatea tokatzen zaiguk, gehiago baitago itxaropenetik etsimendutik baino”

Egia duk, bai, hala ere, nahi baino gutxiago egin dugula aurrera. Hik bezala nik ere sarritan egin zioat neure buruari hire azken galdera hori: Huts, kale, egin ote dugu euskara eta euskaraz gozatzen irakatsi ez dieguelako gure ikasleei?

Bizitzak (eta historiak) ez dik galdera bakar bat bera ere erantzunik gabe uzten (denbora eman behar), eta horrek ere izango dik berea. Baina us-te diat hutsak direla gure hutsak beste zenbaitenarekin alderatuz. Gakoa, nire ustez, ez zegok gozamen-kontuan soilik, sakonagoko beste zerbaitean baizik, eta honetara bil litekek: non jartzen dugu gure nortasunaren arrazoia?, noiz ulertu behar dugu ez dagoela Euskal Herririk euskararik gabe? Hori ulertzen dugunean, berez gozatuko diagu euskararekin.



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezaritas
Lantekua: egu, aurten, PVC
Pisua orokorra

**GRUP
PANELMI**

San Roke, 7 behe
Pol. Glaso - Glaspe kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 748 676

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriguren, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA 1965-2015

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA


elgoibar
bizitzeko



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Mila esker joan den astean Herriko Antzokian I.B. Musika eta Dantza Eskolak eskainitako omenaldiagatik.

Ezin ahaztu zenbat jaialdi, zenbat ordu, zenbat gai desberdin, zenbat ikasle, zenbat dantza eta koreografia, musikak, josi, jantzi, orraztu...

Espero dut hainbeste urtetan gurekin dantzari ibili diren ikasleek oroitzen onak izango dituztela.

Mila esker nire ondoan elkarlanean aritu diren irakasle eta laguntzaile guztiei.

Baina nire atzean beti izan dudana amari eskaini nahi diot Andradek gustu handiz egin dako lan hau:

Ama Ankora, zuk, bai, merezi duzula!

Lurdes Odriozola Sustaeta ☺

Basogintza

Beste behin ere, esku lizun batek baso-bandejetan ereinda nituen gaztaina eta Ginkgo haziak ostu dizkit. Enegarren aldia da honelako lapurreta eta sabotaiak jasaten ditudala nere basogintza proiektuan. Badira urteak gaztainaren berreskuzpenean lan egiten dihardudala eta ez didate uzten, ez didate ordaintzen eta eraso egiten didate. Salatzen dudana arren, berdin dio.

Basogintza teknikariak beraien proiektuak ateratzeko baliabideak behar dituzte. Nik oso proiektu onak ditut, baina lotsagarria da lan handia egin, lanerako grina erakutsi, proiektuak izan eta ustez jefe direnek izorratzea eta aterabiderik ez emotea. Igarzen da ez dutela sentsibilitaterik, ez nortasunik, ez proiektuak garatzeko beharrezko formakuntzarik. Bestean lanari so, ezer egin gabe barre egiten dutenak, hoiek bai miserableak. Zuekin osasuna galtzen dugu, eta bortxatua sentitzen naiz edo nago. Gezurra eta ustelkeria ardatz; zentzugabe, harroputz eta lapur... Umiak moduan, gainera.

Hirugarren aukera duzu batzeko. Partaidetza da berrikuntzarik handiena, gizartea aktibatuzko biderik eraginkorrena, eta gauzak konpondu edoeta zuzentzeko; gizartearen eta batik batik, formakuntzadun langileen ikuspuntu, kexa eta iradokizunak ezinbestekoak dira.

Gutxieneko baldintzak behar ditugu lanerako. Zuen estimazio eza herritar guztienganakoa da; arazo larriei irtenbidea emateko beharrezko mailarik ez duzelako izango da agian?

Mikel Etxabe ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Aita Agirreko eskolaren etorkizuna definitzeko parte-hartze prozesua jarriko du martxan Elgoibarko Udalak

Kultura, hezkuntza eta euskara batu nahi ditu Udalak Aita Agirreko eraikinean

Aita Agirreko eskolak egon ziren eraikina egoera txarrean dagoela-eta, barrutik berritzeko asmoa erakutsi du Elgoibarko Udalak. Fatxada dagoen horretan mantenduko dute, baina barrutik egitura berria emango diote eraikinari. Gaur egun herriko hainbat talde eta eragilek erabiltzen dute Aita Agirre plazan kokatuta dagoen eraikin zaharra. Bertan dute egoitza, besteak beste, Gurutze Gorriak, Nagusilanek, Elgoibarko Lagun Taldea txirindulari elkarteak, AEK euskaltegiak, Egur arte tailerrak, Atxutxiamaiak eta Udal Musika Bandak. Horiekin hartu emanetan daudela esan du Garatek, eraikinetik atera eta beste lekuren batera lekuak datu nahi dituztelako, eraikinaren egoera kaskarra dela-eta.

Eraikinak etorkizunean izango duen erabilera zehazteko, bestalde, prozesu parte-hartzailea jarriko dute martxan, udan edo udazkenean. Herritarren parte-hartzea bileren bitartez sustatuko dute, eta prozesuak Hiri Antolamendurako Plan Nagusia onartzeko prozesuaren antza izango duela aurreratu dute arduradunek. Sei edo zortzi hilabetez luzatuko da prozesua, eta horrenbestez, hurrengo legegintzaldian ja-

rriko da proiektua martxan.

Eraikinak aukera asko eskaintzen dituela nabarmendu du Rikardo Garate Hirigintza Arduradunak. Birgaitze lanek 3 eta 4 milioi euro arteko kostua izan dezakete laurrekusi dute, baina, "lehentasunezko" proiektua dela azaldu du, eta ondorioz, zorpetzeko prest dago Elgoibarko Udalak. "Elgoibarko Udalak zergarik gabeko ondasuna dauka, eta horrelako obra bat egin ahal izateko zorpetzeko aukera ematen digu horrek". Horrez gain, Jaurilaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak jasotzea ere aurreikusten dute.

XIX. mendeko eraikina

Aita Agirre eskolak eraikitzeke obren enkantea 1890. urteko abenduaren 31n egin zen Pello Arrieta historialari elgoibartarrak idatzitako *Elgoibarko Ondare Historiko Artistikoa, arkitektura zibila* liburuan jasota ageri denez. Obrak 1892. ingurura arte luzatu ziren, eta 1892-1893 ikasturtean hasi ziren eskolak ematen. Frai Francisco Agirre (1863-1941) elgoibartarren izena jarri zioten eskolari eta aurrealdean duen plazari. Botryako (Txina) apezpikua izan zen Agirre. Eraikina estilo neoklasikoaren



hastapenak jarraituz eraiki zuten, eta zuruko oinplanoak 650 metro koadro hartzen ditu.

PPren kritika

Javier Nuñez PPko zinegotziaren arabera, 2015eko Udal Hauteskundeetarako kanpaina egiten hasi da Alfredo Etxeberria. Bere ustez ez dauka zentzurik orain Aita Agirre eskoletako eraikinaz berbetan jarduteak, alkate dagoen denboran ezer egin ez duenean. Dena den, PP proiektu honen alde dagoela aipatu du, "egiazkoa" baldin bada.

Hamar bat metroko bizkotxoa egin zuten zapatuan, Kalegoen plazan



Pastelak taldeak hamar bat metroko bizkotxoa prestatu zuten zapatuan, eta ondoren, txokolate beroarekin banatu zieten herritarrei. Gipuzkoako zazpi gozogile ezagunek osatzen dute Pastelak taldea, tartean Elgoibarko Muruamendiaraz gozotegikoek.

Bizkotxo tarta erraldoia egiteko 510 arrautza, 24 kilo azukre, hamabi kilo eta erdi irin eta 25 litro esne erabili zituzten gozogileek. Pastelgintza artisaua sustatzeko eta berezoi eurekiko duten leialtasuna eskertzeko antolatu zuten ekitaldia. Guztira, 1.300 bat razio banatu zituzten.

Egitasmoa **Autobus zerbitzua**



Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzua berritzeko proposamena egin du, probintziako 56 herritan jasotako

ekarpenak kontutan hartuta, tartean Elgoibarko eta Mendaroko bizilagunenak. Orain, proposamen hori herritarren beharretara egokitzen ote den jakin nahi dute eta bigarren bilera saioa jarri dute abian herriz herri. Mendaron martxoaren 20an egin zuten bilera, eta apirilaren 10ean Elgoibarren egingo dute. Herritarrei, eta baita udalei ere, aukera emango diete berriro iritzia emateko eta aurreproiektuen inguruan nahi dituzten ekarpenak egiteko. Ekarpenak webgunearen bidez (www.garraioahobetzen.net) egiteko aukera ere izango da, baina badaude iritzia emateko modu eta bide gehiago ere. Informazio osoagoa: w390w.gipuzkoa.net.

Datorren egunean izango da baztarran, 18:30ean, Kultur Etxean.

Ekintzailtza sustatzeko diru-laguntzak emango ditu Debegesak

Ekintzailtza modu eraginkorrean sustatzeko helburuarekin, Debegesa garapen agentziak 120.000 euroko dirulaguntzak eskainiko ditu Debabarrenean enpresa berriak sortzen laguntzeko, Foru Aldundiaren laguntzari esker. Diru-laguntzak negozio edo aktibitatea martxan jarri ahal izateko eskainiko dira, inbertsioaren %75a arte. Proiektu bakoitzeko gehienez 7.000 euro emango dituzte, eta industria arloko enpresen kasuan, 10.000 euro gehienez. Diru-laguntzak eskuratzeko bete beharreko baldintzak webgunean argitaratu ditu Debegesak, www.debegesa.com helbidean. Eskerak Debegesak Eibarren duen egoitzan aurkeztu behar dira, ekainaren 30erako.

ENJOY SUMMER

Jolastuz eta gozatzuz
ikasi ingelesa, alemana eta frantsesa
ELGOIBARREN

ILS

Industry Language Services
Informazioa, matrikula eta ordategiak
943 744 040
www.ils.es
IMIn gaude



5 urtetik aurrera, ekainaren 23tik uztailearen 30era eta ekainaren 23tik uztailearen 11ra bitartean, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Ingelesa, frantsesa eta alemana modu naturalean ikasi, aire librean, jokoan, abestien, ipuinen eta eskulanean bitartez.

2014/2015 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK

HAURRAK ETA GAZTEAK – INGELESA, FRANTSESA, ALEMANA, TXINERA ETA ITALIERA.
HAURRAK 4 urtetik aurrera GAZTEAK 12 urtetik aurrera

Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.
Cambridge azterketen prestakuntza: KET, PET, FIRST CERTIFICATE eta CAE.

Izena **Koldo Mitxelena**



Martitzen eguerdian ezustean hil zen Koldo Mitxelena Zumaran Eibarko '... eta kitto!' herri aldizkariko arduraduna, 39 urte zituela. Leioan Kazetaritza ikasten zegoela, 1993an hasi zen ...eta kitto! aldizkarian idazten, kolaboratzaile moduan eta 1998az geroztik ...eta kitto! Euskara Elkarteko koordinatzailea izan da. Hartu eman handia izan zuen Elgoibarko Izararekin eta BARREN aldizkariarekin, eta bera izan zen bailarako komunikazio proiektuaren gidarietako bat. Kolpe handia jaso du euskalgintzak. "Euskararen aldeko langile nekaezin" gisa deskribatu dute haren lankideek. Herri aldizkariaren Internetarako jauzia bideratu zuen Mitxelenak. "Dena eman dio elkarteari".

Ekitaldia **EGI Eguna Elgoibarren**

Euskal Herriko EGI Eguna Elgoibarren ospatuko dute aurten. Apirilaren 12an izango da, eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte egun horretarako. Ikurrinaren igoyerarekin hasiko dute eguna, 11:00etan, eta ondoren, omenaldia egingo dute Kalegoen plazan. 12:00etan izango da ekitaldi nazionala, eta 14:30ean herri bazkaria egingo dute, parrokiako arkupeetan. Bazkari irekia da, eta txartelak salgai daude Txarriduna, Malape, King-Kong, Ametsa eta Sigma jatetxean. 18:00etan pilota partidak jokatu dituzte Elgoibarko pilotariek eta pilotari profesionalak. Patxi Eugi eta Iker Txu-



rrika, Sebastian Gonzalez eta Asier Lizarralderen kontra arituko dira Kalegoen plazan. Segidan, triki-poteoa egingo dute, eta gero, Oihan Vegare-

kin disko festa egongo da Maalako parkean. Afalostean berriz girotuko du gaua Oihan Vega DJak, 23:00etatik aurrera.

Irudia **Gure Esku Dago taldea, Mendaron**



Gure Esku Taldea sortu dute Mendaron, erabakitze eskubi-dearen alde. Apirilaren 11n 'Gazta zati bat dokumentala eskainiko dute San Agustin Kultur Gunean 22:00etan, eta dokumentaleko protagonistaren bat ekarriko dute ekimen horri buruzko azalpenak ematera. Dokumentalaren ostean, metroak erosteko aukera egongo da. Mendarori 33. kilometroa betetzea egokitu zaio ekainaren 8ko giza katean. Apirilaren 26an, bestalde, herri argazkia aterako dute Herriko Enparantzian, 12:30ean.

Erretratu zaharra



1972

Aste honetako erretratu zaharra Juan Kruz Sasiainek ekarri du BARRENERA. Elgoibarko Ikastolak parrokian zeuzkan lokaletako batean ateratako argazkia da hau, 1972ko ekainean. Garai bateko OHoko (EGB) 4. mailako ikasleak azaltzen dira erretratuan, Joxe maisu zestoarrarekin.

Goian: Josu Esnaola, Andoni Etxezarraga, Iñigo Legorburu, Gotzon Zarrandikoetxea, Bittor Alberdi (†), Jon Iriondo, Agurtzane Azpiazu, Agurtzane Garcia, Mirian Iriondo, Begoña Gurrutxaga eta Lurdes Peñalba.

Erdiko ilaran: Jon Suarez, Eduardo Armendia, Jabier Kalzakorta, Felipe Castrillejo, Miren Julite Perez, Garbiñe Del Valle eta Joxe Lasa maisua.

Aurrean: Ibon Basalo, Jose Ignazio Elorza (†), Juan Kruz Sasiain, Rosa Arriola (atzean erdi estalita) eta Loredi Larrañaga (atzean erdi estalita), Mari Jose Jaio, Agurtzane Opakua, Elena Zubelzu (erdi estalita), Xabier Bastida, Maite Barrenetxea (erdi estalita) eta Aitor Mujika.

ESKERTZA

MARITXU ZUBIAURRE GONZALEZ DE MENDIBIL



2014ko martxoaren 30ean hil da, 87 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Mende bat makina-erremintan



Elgoibarko makina-erremintaren industriak ehun urte bete ditu. Jakina, makina-erremintaren industria ez zen kolpetik sortu, eta horrenbestez, okerra litzateke, beharbada, gure industria modernoaren sorrera urte jakin bati lotzea, baina abiapuntu bat hartu beharra dago beti, eta Jose Leon Ciaranek eta Eulogio Estartak Ciaran y Estarta enpresa sortu zuteneko urtea hartu dute erreferentziatzat sektorean aritu eta adituek: 1914a. Ordutik, etenik gabe jardun dute Elgoibarren makina-erremintak eta enpresak sortzen, eta horrek egiten du horren berezi Elgoibarko kasua. Izan ere, Elgoibar ez zen aitzindari izan eredu horretako makinak sortzen, ordurako, besteak beste, Eibarren ere hasiak zirelako, baina Elgoibarren etenik egin gabe jardun dute horretan mende oso batez, eta horretan ez du parekorik.

Ainara Argoitia

Kasualitatea ez da, beharbada, Elgoibarko industria modernoa estu-estuan makina-erremintari lotua egotea, gerta ziteke-elako hemengo enpresa gizon-emakumeek –ardura postuak gizonezkoenak ziren hastapenetan, baina tailerreko eginkizunetan emakume talde ugari jardun zuten– beste bide batzuk ere saiatzeari Eibarren egin zuten antzera, baina ez. Elgoibarren bide hori jarraitu dute urteetan, makina-erremintan espezializatzeraino. Eta ondo aztertuta, badaude egon, hori ahalbi-

deratu duten faktore batzuk. Halaxe on-dorioztatu dugu mendeurrenaren harira, Elgoibarko makina-erremintaren historia-zaleekin izan dugun solasalditik.

Erretiroa hartutako bost gizonen sortu zuten historiazaleen talde hori duela bi urte inguru: Pedro Andonegi, Anton Bergara, Luis Mari Zabaleta eta Miguel Angel Mujika makina-erremintako industria-gizonen eta Pello Arrieta historialariak. Helburu batek batu zituen, eta batzen ditu, IMHn: Luis Mari Ecenarro, Patxi Aldabal-detrekuk eta Karmelo Urdangarinek libu-

rutan jasotako Elgoibarko makina-erremintaren historia osatzea, protagonisten ahozko testigantzak jaso eta grabatuta, eta bide batez, herriko hizkera biltzea. Bazekiten lan hori presazkoa zela, lekukoak badoazelako adinean aurrera, eta hala, historia bizia ahal zen bizkorren jasotzeari ekin zioten. Ordutik hona, 70 urtetik gorako 56 elgoibartar elkarrizketatu dituzte, eta 120 ordutik gorako grabazioa bildu. Material guzti horrekin ondutako testu eta ilustrazioak Elgoibarko Udalaren edo Museoren eskura jarriko dituzte.



Pello Arrieta, Luis Mari Zabaleta, Anton Bergara eta Pedro Mari Andonegi.

Taldean jasotako informazioarekin eta taldekideek egindako ekarpenekin, makina-erremintako enpresak Elgoibarko kaleetan non egon ziren jaso dute Anton Bergarak eta Luis Mari Zabaletak, eta Pello Arrieta historialariak idatzi du Elgoibarko industriaren historia laburtua, espreski mendeurrenerako. Pedro Mari Andonegik, berriz, Elgoibarko enpresen sorrera eta bilakaera erakusten duen mapa osatu du, eta azken bi lan horiek Elgoibarko Udalak bere aldizkari ofizialean argitaratuko ditu, hiru aletan [apirileko alean argitaratu dute lehenengo zatia]. Ikaragarri aberatsa da Elgoibarko makina-erremintaren historiazaleek jaso duten ondarea, eta guzti horri lotuta, badu-

te orain beste erronka edo nahi bat, lortu arte baztertuko ez dutena: Elgoibar herria makina-erremintaren hiriburu izendatzea, uste dutelako izendapen hori lortzearen onurak asko izango lirakeela.

Luze aritu gara haiekin makina-erremintaren historiaz, eta bereziki, industria horren hauspoa izan diren enpresari ekin-tzaileen eta haien ondorengoen baloreez. Joan dira haietako asko, baina haiek ereindakoaren emaitza da gaur daukaguna, Pedro Mari Andonegiren esanetan. Asko dira enpresari haiek amankomunean dituzten ezaugarriak, baina guztien artetik lau aipatu dituzte: apaltasuna, disziplina, eginahia eta ardura. Egia da hasierako urte

haietan enpresa berriak sortzeko abagune ekonomiko ona izan zutela, oro har, besteak beste fabrikatzen zutena saldu ahal izateko merkatua izan zutelako. “Dena zegoen egiteko, eta egin, egin zuten. Ez zen gaurko mundu globalizatuko konturik! Auzardia handia erakutsi zuten. Gaur, bideragarritasun plana da edozein enpresa sortzeko egin behar den lehenengo gauza, eta orduan, azkenerako lagatzen zuten hori. Ekonomia lokala zen, eta dena hemen bertan egiten zuten, eta ez baldin bazegoen, sortu egiten zuten”, azaldu du Anton Bergarak.

Ez zeuden atzean gelditzeko, ez. Atzeritik ekarritako makinak erabili zituzten el-

“Ekonomia lokala zen, eta dena hemen bertan egiten zuten, eta ez bazegoen, sortu”

- ANTON BERGARA -

“Disziplinan ohitutakoak ziren, eta gauzak ondo egiteari ematen zioten garrantzia”

- PELLO ARRIETA -

“Gaur egungo gazteriarekin, makina-erremintak ez luke beldurrik behar”

- PEDRO MARI ANDONEGI -



goibartarrek eredutzat, punta-puntako makinak, eta haien kopia finak egiteko gai zirela erakutsi zuten. “Estarta eta halako enpresa handiek bazuten kanpoan erosteko aukera ere. Hala, kanpotik ekarri, makina piezaz pieza soltatu, elementu guztien planoak egin, eta berria egiteari ekiten zioten. Doitasun handiko makinak egitea lortu zuten”, nabarmendu du Andonegik. Orduko haiek lana ondo egin zaleak zirela nabarmendu dute historialarien taldekoek, eta hein handi batean, etxetik zetorkiela eskola hori. “Disziplinan hezitakoak ziren, eta azkar egiteari beharrez ondo egiteari ematen zioten garrantzia”, dio Arrietak. “Euren aita lanean zebilen tailer berdinean hasi ziren lanean asko, eta horrek lana sendo eta fin egitea eskatzen zuen, besteak beste aitarekiko errespetuz, gutako asko gure aitengatik hartu gintuztelako lanerako, haiek onak zirela eta gu ere onak izango ginelakoan”, esan du horren harira Andonegik.

Tailerra, unibertsitate

Etxea, familia, zuten oinarrizko eskola gure aurreko haiek, eta tailerra, unibertsitatea. Izan ere, ekintzaile gehienak lehen hezkuntza ikasi ondoren hasten ziren lanean, 14 bat urterekin. Tailerrean ikasten zuten ofizioa, eta hala, ekinaren eginez gainditzen zuten ezina; hau da, hasierako ikasketa gabetia. Makina-erreminta desberdinen erabilera eta produkzio prozesuaren faseak ikasten zituzten tailerrean, eta handik irten-dakoan, Arte eta ofizioetako eskolara edo Mekanikara joan ohi ziren haietako asko. Etengabeko ikasketa-prozesuan murgildu ziren gehientsuenak, teknologiak egunero planteatzen zizkien korapiloak askatu ahal izateko. Beste zenbaitek, berriz, Eibarrera bidea hartu zuten. Eibarko Armeria Eskolak izen handia zeukan orduan ere, eta han ibilitako ikasleek bazuten halako fama bat, hango prestakuntza teknologikoa estimazio handikoa zelako garai hartan. Merkataritza-peritu edo eta industri peritu ikasketak egin zituzten zenbaitek, eta jakintza hori Elgoibarrera ekarri gero.

Auzo gertukoak ziren enpresa gizon haietako asko, senideak eta koadrilakoak ere bai, kasu askotan. Tailerrean, elkarren ondoan eta elkarrengandik ikasi zuten, baina bazuten nor bere bideari ekiteko gogoia ere. Enpresa batean hasi eta han ikasitako-

arekin beste txikiago bat sortzeko adorea izan zuten askok. Batean lanaldia amaitutakoan, eurenean aritzen ziren lanean, orduz kanpo, berandura arte. Eguzki enpresaren sorrera da horren adibidetako bat, Pello Arrietak gogorarazi duenez. Izan ere, Estarta eta Ezenarro enpresako langileek sortu zuten Eguzki. Ezkutuan elkartu ohi ziren tailer berriaren izena eta izana erabakitzeke, Ziarda mendiko txabola batean. Ez zen kasu bakarra izan, hala ere. Txikiak bere bidea egin arte, egunak zituen ordu guztiak lanean pasatzen zituzten, lehenengo batean eta gero bestean, enpresa txikiak bidea egina zuela ikusi are. “Estarta y Ecenarro-Sigma izan da Elgoibarko makina-erreminta enpresa sarearen oinarria, eta han josteko makinak egin beharrak garatu zuen gero mekanizazio teknologikoa”, nabarmendu du Andonegik.

Herri-kaskoan zabaldu zituzten tailertxo asko, etxe azpitan-eta, eta haietako gehienetan zegoen aurrez Estartan lanean ibilitakoren bat. Hala, Estartatik sortutako enpresa sareaz ari garela, bada kontu bat denek nabarmendu dutena: *Know how* delakoa (jakin nola egin). Helduagoendik ikaslea. Gaur, hori berreskuratu beharra ikusten du Bergarak. ikasketa bukaerako proiektuetan ikasleentzat makina-erremintan ibilitakoak zein lagungarri izango liritekeen aipatu dute biek. Garai hartakoek bazuten “zorte” hori. Eta laguntzaz ari garela, aipagarria da, era berean, orduko elizgizonen Elgoibarko Lanbide Heziketa eta makina-

erremintaren ekintzailtza bultzatzeko jokatutako papera, Elizak eragin handia izan zuelako ekintzaile belaunaldi harengan. Arrasateko kooperatibismoaren sustatzaile nagusi izan zen Jose Mari Arizmendiarrak, esate baterako, harreman zuzena izan zuten Elgoibarren kooperatibak sortu zituztenekin, Pello Arrietak jaso duenez.

Gaur eguna

Makina-erremintak horren oinarri sendoak izateko gure aurrekoek izan zituzten ezaugarriak zerrendatu dituzte elkarriketatuek. Lilura antzeko bat nabari zaie iraganaz ari direla, baina ez dute gutxiago agertu gaur egungo industriaz galdetu diegunean. Makina-erreminta bizi-bizi dagoela nabarmendu dute, oinarri sendoekin eta “oso prestatua” garai berrietara egokitzeke. “Oso prestatuta dauzkagu gazteak. Gaurko gazteriarekin makina-erremintak ez luke beldurrik behar”, nabarmendu du horren harira Andonegik.


Bistan da gaurko erronkak eta hastapen urte haietakoak ezberdinak direla, mundu globalizatuan lehiakor izan beharrik ez zutelako ordukoek eta sasoi hartako abagune ekonomiko on hura ere falta dutelako gaurkoek, baina bide egokian ikusten dituzte: teknologin inbertituz eta kalitatea zainduz. Erronkak asko dira, baina hiru nabarmendu dituzte: metalezko produktuetatik aldentzea, energiaren eta auto elektriko-en merkatura egokitzea eta finantziatorako bide berriak aztertzea.

Elgoibar, makina-erremintaren hiriburu

Makina-erremintaren hiriburu izendatzeko meritua egin ditu Elgoibarrek, Makina-erremintaren historiazaleen esanetan, “ez baita gutxi ehun urtean etenik gabe makina-erreminta egiten jardun duen herri bakarra izatea Estatuan”. Sare “oso-oso” garatzeko sektore industrialera irakurri du Elgoibarrek: eskola profesionalak [Meka, IMH], ikerketa teknologikoko zentroak [Ideko, Fatronik eta Tekniker], fabrikazio integrala [modeloak, fundizioak, hornitzaile sarea, makina fabrikatzaileak], ekoizlen elkarteak [AFM], komertzializazio eta esportazioarako elkarlanak [Unazu, Fumhe, Afaex, Mahercoco, Atera...BIEMH], atzerrian egindako kokapenak, batuketatik sortutako enpresa ereduak [ACME, Danobat, Maherholding...] eta Makina-erremintaren Museoa bera.

Elgoibar makina-erremintaren hiriburu izendatzeak “irudimena azkartzeko” ezezirik, munduko beste hainbat herrirekin harremanak estutzeko ere balio izango du, esate baterako, Frantziako Lyonekin, Erresuma Batuko Coventry edo Birminghamekin, Estatu Batuetako Cincinnati edo Bridgeportekin, Taywango Taichungekin... Balioko luke, era berean, ikasleen trukerako ere. Onurak baino ez dizkiote ikusten historiazaleek.

Elgoibarko makina-erremintaren enpresen sorrera eta bilakaera, ehun urtean



Iturria: "Camaleón Urdegarrin: Estarta y Ecenarro - 80 años de historia 1944-1996. Elgoibar 2008"; "País Ababaldetxe: Makina eta Gidaria. Gida historikoa. Elgoibar, 2008"; "Ibernetik: Egoitza: "Elgoibarko Makina-erremintaren historiak".



Makina-erremintaren historiako gertaera aipagarrienak

Elgoibar makina-erremintari horren lotua Egotearen faktoreak eta baloreak aztertu ditugu historiaren errebaso egitearekin batera, eta bada ezaugarri bat historialari taldekoekin izandako solasaldian behin eta berriro irten dena: burdina lantzeko gure jendeak zeukan trebetasuna. Burdinolei oso lotua egon da beti Elgoibarko industria. Iraganean, tradizio handia izan zuten, adibidez, burdinaren lanketari lotutako ofizio hauek: burdin-hezigileek, erlojugileek, errementariak, forjalariak, kanoigileek eta armaginek, besteak beste, eta horrek guztiak oso prestatu egiten zituen elgoibartarrak gero makina-erremintan aritzeko.

Historian, mugari adierazgarriak ere badira. 1877. urteko ekainaren 29an zabaldu zuten San Pedro fabrikak ezarri zuen mugari horietako bat. Romualdo Gartzia negozio-gizon nafarrak sortu zuen. Mende bukaeran ehun langileri ematen zien enplegua eta askok uste dute berak hasi zuela industrializazioa Elgoibarren. Bilboko siderurgiarekin harreman estua zuen Gartzia, eta 1887an bultzada handia eman zion Zaldibar-Elgoibar trenbide zatiari, trena enpresara bertaraino iritsi zedin. Industria modernoaren oinarrietako bat bermatu zuen trena ekarritako, eta beste zutabe nagusiak –korreoa, telefonoa eta argindarra– laster ziren iritsi.

Armagintzak ere indar dezentekoa zuen garai hartako Elgoibarren. Egiten zituzten pistolak, errebolberrak, zizkak eta eskopetak eta langintza horrek oso trebe egiten zituen elgoibartarrak eskulan finerako. “Armak ziren garai hartako produktu finenak. Mekanika fina eskatzen zuen armagintzak”, zehaztu du Anton Bergarak. Besteak beste, horrek biek, burdina lantzeko zuten trebeziak eta armagintzak eskatzen zuen fintasun eta zorrotzasunak, ahalbideratu zuten gero makina-erremintak denbora gutxian hartu zuen indarra. Hain zuzen ere, armagintzan aritutako Jose Leon Ziaran izan zen makina-erremintan aitzindaria, Elgoibarren. 1898rako taladroak egiten zituen Maalan, Belgikatik ekarritako planoak erabilia. Mujikak, bestalde, zerrak esmerilizatzeko makinak sakatzeko tornuak egiten zituen, Arriagan.

Jose Leon Ziaran bera izan zen, Eulogio

Estartarekin batera, Ciaran y Estarta enpresa sortu zuena. Langileek burdingintza lanetan zuen trebetasuna baliatuta, arma industria-rentzako zultzeko makinak egiten hasi ziren, eta huraxe izan zen gero Estarta y Ecenarro S.A. izango zenaren oinarria (1924). Estarta y Ecenarro, berriz, Elgoibarko lehenengo industrietatik hartzen dute galdekatutako lagunek, armagintzaren industria-inertziatik aldentu eta langileak ofizio berrietan trebatu zituelako tailerlean bertan.

1920-1940-1960

1920an, Estarta eta Ciaran banatu egin ziren, eta nor bere bidea hartu zuen. Hezkuntzari dagokionean, aurrerapauso handiak eman ziren. Bernardo Ezenarro marrazketa tailerreko gaiak irakasten hasi zen Arte eta Ofizio eskolan, eta Eibarko Armeria Eskolan ikasitako Lazaro Unzueta ere irakasle hasi zen eskola berean; baita German Pedrosa modelista eta ofizio handiko irakaslea ere.

Estarta enpresan, berriz, josteko-makinak egiten hasi ziren, horretarako instalazioetan inbertsio handia eginda. Makina aurreratuak inportatu zituzten josteko makinaren prezisiozko piezak egiteko. Amadeo Aizpitarrek orduko industriak zituen beharretara egokitu zuen eskola mekanikoa, beste hainbat industria gizonekin batera, eta Jose Aranek

indar berria ekarri zuen 1940an Jarbe sortzearekin. Hala, Estarta-Sigman eta Jarben lanean ibilitakoek enpresa berriak sortu zituzten taldean, eta Estatu osora saltzen hasi ziren, almaginisten bitartez. Lana ugaritzearekin batera, populazioak ere gora egin zuen Elgoibarren, eta Anita irakaslearekin ikasitako hainbat emakume ere sartu ziren lan merkatu horretan.

1960-1975

Sendotze urteak izan ziren. Diseinuan lan handia egin zuten, eta eskola profesionalean ikasitako gazteen ezagutza baliatuta, prezisio handiko lanak egin zituzten indarra hartzen ari zen industria automobilistikorako. Nazioartean ere lekua egin zuten elgoibartarrek. Cruz Arriola eta Urbano Konde enpresari elgoibartarrek makina ugari saldu zituzten Estatu Batuetan, eta Estartak bi fabrika zabaldu zituen Kolonbian eta Brasilen, eta makina transfer alemaniarrek egiten hasi zen. Hemen bertan, bestalde, enpresa-elkarte garrantzitsuak egon ziren. Bost enpresak bat eginda sortuko zen ACME, Amadeo Aizpitarrek, Abdon Ansolak, Ramon Etxanizek, Luziano Pascualek eta Manolo eta Jose Zabalak zuzendu zuten. DanobatGroup ere jaio zen, Goiti, Eguzki, eta Soraluze kooperatiben elkartzetik.



Estarta y Ecenarro lantegiko produkzio tailerra.

1976-1985

Krisi ekonomiko larriaren urteak izan ziren, eta Espainiako ordura arteko industria astunaren gainbeheraren urteak. Autoen industriak indar handia hartu zuen, ostera. Zenbakizko kontrola sartuko zen tailerretan, eta horretarako, garrantzia handia izan zuten Eibarko Armeria eskolak eta Mondragon Unibertsitateak. Aurrerapen handia izan zen, baina enpresa txiki askoren azkena ere ekarri zuen. Merkatuen zabaltze bat ere eman zen, almagaztariak desagertzen joan ziren heinean. Kanpora gero eta gehiago saltzen zen, eta ez zen harrizkoa Elgoibarren egindako makinaren stand-ak topatzea nazioarteko azoka handietan. Eibarren, berriz, Tekniker sortu zuten eibartar eta elgoibartar talde batek.

1986-1990

Makina-erremintaren hazkunde urteak izan ziren, 1989an ekonomiaren atzeraldi bat izan bazen ere. Nazioartean onenekin parez pare jarduteko ikararik ez zuten elgoibartarrek, hemen egindako makinaren kalitatea estimatzen zutelako kanpoan ere. Gurean, Fatronik eta Ideko sortu zituzten, ikerkuntzan sustatzeko.

1991-1994

Krisialdi gogor bat egon zen, baina itxaropenerako arrazoiak ere izan ziren. IMH Makina-erremintaren Institutua sortu zuten, eta zenbakizko kontrolean (CNC) elektronika digitala sartu zuten. 1986an Europako Batasunean sartu ginen, eta enpresa batzuek ez zuten asmatu hortara egokitzeko eta itxi egin behar izan zuten. Estarta y Eceñarro S.A. da horren adibide (1995ean itxi zuten). Hala ere, jarraitu zuten Estarta markako artezte makinak egiten. Ingeniariaren kopuruak gora egin zuten enpresa guztietan.


1995-2012

Nazioartean indar handia hartu zuen Elgoibar-ko makina-erremintak eta gaur, gehiena, estatuko mugetatik kanpora esportatzen dute elgoibartarren enpresek. Gaur, makinak baino gehiago, mekanizazioarako sistema osoak lantzen dituzte enpresa askotan. DanobatGroupek azkena lotu duen kontratu handia horren adibide garbia da.

Gaur egun munduko lehen hamar herrialde fabrikatzaile eta esportatzaileen artean dago Elgoibar, eta Frantzia eta Erresuma Batuen maila berean gaude, eta ez dugu ahaztu behar, hemen gehienez ere 3.000 bat lagun arituko direla makina-erremintan lanean. Hutsaren hurrengoak, Japonian, Alemanian edo Txinan dihardutenekin alderatuta.



Nikaxi Andonegi eskolak ematen Sigmako eskolan.



Gozua lantegiko langileak.



IMHko tailerra.



Danobaten instalazio bat.



Makina-erremintaren museoa, historiaren gordailu

Burdinari lotutako 500 urteko historia kalera aterako du museoak, mendeurrenaren harira

Makina-erremintaren museorik gabe nekez uler genezake gaur Elgoibarko industria izan dena. Benetako altxorra gordetzen du museoak. Garai bateko olagizonak, forjariak eta Elgoibarko ekintzaileak omen du nahi ditu, haiek erein eta hazi zutelako burdinaren industria, gaurko makina-erreminta industriaren hazia. Hiru nabe ditu museoak, eta Pedro Ortuondo bertako zuzendariak lagundu digu ibilbidea osatzen. Eskuin hegaleko nabean hasi dugu bisita, errementerian. Ikusi dugu 1900. urteko tailer mekanizatuaren erreplika litzatekeena, eta ibili gara erakusketa-gelan barrena, erakusgai dituzten altxorak banan-banan ikusten. Industriaren eboluzio teknologikoa era pedagogikoa eta dibulgatzailean azaldu digu Ortuondok. Bezperan, profesionalen talde baten gidari lanak egin zituen Ortuondok, gure oinarriko lehenengo azalpenak eman aurretik. Eta horixe du bereizgarri museoak: edozeinen jakin-mina asetzeko beste informazio gordetzen duela, makina-erremintaz ezer gutxi dakienentzat nahiz industria honetan aritutakoentzat.

Bisitan zehar, Erdi Aroan hasi eta gaur arte burdinaren lanketak Elgoibarren eta inguruetan zer nolako garrantzia izan duen azaldu digu Ortuondok. Sasoi batean, gutxienez hamasei burdinola egon zirela Elgoibarko jurisdikzioan, gerrarako arma eta hornizioen beharrak eraginda, hein handi batean, eta horrek merkataritza-trafiko handia sortzen zuela gurean, batetik Bizkaitik, Somorrosto aldetik, iristen zen burdinaz jabetzeko, eta bestetik hemen bertako produktuak kanpora eramateko. Burdin-langintzan eta forjatuan espezialdu zen Elgoibar bereziki, eta arte-lan handiak egin zituzten elgoibartarrek burdin-saregintzan. Burdina zen nagusi, baina armagintzak ere indar handia hartu zuen ingurorotan. Hain zuzen ere, gogoratu du makina-erremintaren fabrikazioan aitzindari izan zirenetako bi, Eulogio Estarta eta Jose Leon Ciaran, arma industriarentzako zulatzeke makinak egiten hasi zirela. Orditik findu dira diseinuak eta egin dira aurrerapen handiak, baina museoan dituzten ain-



Pedro Ortuondo laster kalera atera asmo duten makina batekin, Museoan bertan.

tzinako makinak badabilta gaur ere. Gaur egun ezagutzen den moduan, industri produkzioa ulertezina litzateke makina erremintaren ekarpenik gabe, eta horixe nabarmendu du Ortuondok.

Mendeurrenari begirako ekintzak

Makina-erreminta sektore guztietan dago gaur: aeronautikan, oihalgintzan, automozioan, energiaren sektorean..., eta horregatik, makina-erremintak gurean izan duen garrantzia ikusteko, museoak kalera aterako ditu aurki hamar makina eta baita burdina lantzeko erabiltzen zituzten tresneriak eta minerala bera ere. Burdinaren 500 urteko historiaren argazkia irudikatuko dute. Bolatokiko parkean eta Giza Eskubideen plazan jarriko dituzte horiek erakusgai, beira-arasa edo bitrinetan sartuta, alboan makinaren edo produktuen inguruko informazio guztia

dutela, eta panel informatiboz apainduko dute Bolatoki buelta hori.

Elgoibarrek harro egoteko arrazoirik baduela nabarmendu du Ortuondok, eta harrotasun ikur izan diren makinez gain, Elgoibarren burdinlagintzan jardundakoei Altxolako dorretxerako egin zituzten ateak ere kanpora aterako dituztela. Murguzatarren etxekoan jatorrizko arkua dagoen lekuan jarriko dute ate hori zabalik, "herriari zabalik". Hantxe egongo dira aurtengo parte osoan.

Aurrera begira, eta mendeurrenaren harira, bestelako ekintza batzuk ere egingo dituzte, tartean kontzertu bat, baina horien berri apirilaren 16an emango duten prentsaurrekoan emango dutela aurreratu du Ortuondok.

<http://www.museo-maquina-herramienta.com/>

'8 apellidos vascos' filmaren sei emanaldi eskainiko dituzte asteburuan

Domeka gauean ere zine-emanaldia egongo da



Aldaketak egin dituzte apirilko zine karteldegian, eta Kultura Sailak *8 apellidos vascos* film arrakastasua eskainiko du asteburu honetan. Emilio Martínez-Lazarak zuzendutako filmak izan duen harrera ikusita gainera, ohiko asteburuetan baino emanaldi bat gehiago eskainiko dute, eta domeka gauean ere egongo da zinera joateko aukera, 21:30ean.

Euskaldunok komediarako lehengai gisa erabiliko gaitu Espainiako pelikula honek, Borja Kobeagak idatzi duen gidioari jarraituz. Rafa Sevillako señorito bat da, eta beti izan du eskura nahi duen guztia. Euskal gazte batekin maiteminduko da, eta Euskal Herrira egingo du bidaiari haren atzetik. Kosta ahala kosta, Amaiarekin harremana hasi nahi du, eta, horretarako, euskal izaera bereganatuko du: Antxon izena hartuko du, eta zortzi euskal abizen erantsiko dizkio: Urdangarin, Argiñano, Otegi, Ereñxun... Clara Lago, Dani Rovira, Carmen Machi, Karra Elejalde, Alfonso Sanchez eta Alberto Lopez izango dira aktore nagusiak.

Atxutxiamaikaren udako ekintzetan parte hartzeko izenemate epea zabalik dago



Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaikea aisialdi taldeak prest dauka udarako eskaintza, eta dagoeneko zabalik dago ekintza horietan izena emateko epea. Txokoak eta egonaldiak eskainiko dituzte 2 eta 12 urteko gazteentzako. HHko umeentzako eta LH1-2ko gaztetxoen-entzako txokoak antolatu dituzte. Azken urteetan bezala, bi txanda izango dira txokoetan. Lehenengoa ekainaren 23tik uztailearen 11ra arte izango da, eta uztailearen 14tik 24ra arte bigarrena. Alabaina, bi txandetan izena emateko aukera ere egongo da.

LH3tik 6rako ikasleekin bestalde, Irañetara joango dira, uztailearen 21etik 27ra. Interesatuak apirilaren 11ra arte izango dute izena emateko aukera. Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokalean edo www.elgoibarkoizarra.com webgunean eman daiteke izena. Informazio gehiago www.elgoibarkoizarra.com webgunean edo 943 741 626 telefonoan (Naiara).

Elgoibarko dantzariak Oiartzunen izan dira

Inazio Bereziartua musika eskolako hainbat dantzari Oiartzungo Soinu Zahar Txapelketan hartu zuten parte joan zen asteburuan. Leire Sasiain, Amaia Astigarraga eta Nerea Sasiain izan ziren oraingoan Elgoibarko ordezkariak, eta dantza eskolako irakaslearen esanetan oso ondo bete zuten euren lana. Hurrengo kanporaketa datorenen igandean izango da, Altsasun, eta han parte hartuko duten Elgoibarko dantzariak hauek izango dira: Gaizka Uranga, Eneko Gonzalez, Irati Marcos, Oihane Agirrebeña, Amaia Astigarraga eta Nerea Sasiain.



Bideo forum saioa antolatu dute gaur guerako

Haizea emakume taldeak antolatuta, bideo forum saioa egingo dute gaur gauean, Kultur Etxean. Rodrigo Garciak zuzendutako *Cosas que diría con sólo mirarla* filma eskainiko dute. Bizitza berreraikitzen ari diren emakume talde bat bilduko da San Frantziskon. Bakoi-tzak bere errealitatea izango du, eta bakoitzak bere bidea aurkitzeko saiakera egingo du. Glenn Close, Cameron Diaz, Calista Flockhart, Kathy Baker eta Amy Brenneman izango dira aktore nagusiak. Bideo forum saioa 21:30ean hasiko da, eta Loredi Salegik gidatuko du ekitaldia.

Lankidetza hitzarmena berri du Elgoibarko Udalak eta herriko ikastetxeek

27.464 euroko diru-laguntza emango diete Ikastola, Herri Eskola, Institutua eta Mekari

Elgoibarko Udalak eta herriko ikastetxeek (Elgoibar Ikastola, Herri Eskola, institutua eta Meka) lankidetza hitzarmena berri du, eta horrenbestez, 27.464 euroko diru-laguntza emango die Udalak aipaturiko ikastetxeei, 2014an hainbat proiektu eta egitasmo garatzeko. Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak 16.400 euro jarriko ditu, 7.627 euro Euskara Sailak eta 3.447 euro Gazteria Sailak. Udaleko Ongizate sailetik emandako diru-laguntza Osasunaren Hezkuntza programa gauzatzeko izango da; Udaleko Euskara sailetik emandakoa, "Eskolaz kanpoko egonaldietarako; Ahozkotasuna-Bertsogintza egitasmorako eta Euskara sustatzeko jarduetarako" eta Gazteria sailak emandakoa Gaztematika (Gipuzkoako haurrentzako eta gazteentzako sustapen sistema) garatzen laguntzeko.

Diru laguntzaren banaketari dagokio-



nez, Elgoibar ikastolak 9.644 euroko diru-laguntza jasoko du, Herri Eskolak 5.415

eurokoa, Institutuak 7.023 eurokoa eta Meka Lanbide eskolak 3.110 eurokoa.

‘Ondoko hilobiko tipoa’ antzezlanak ikusteko aukera izango da Elgoibarren, apirilaren 11n



Txalo produkzioak-ek *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlanak ekarriko du El-

goibarrera apirilaren 11n. Katarina Mazzetik idatzitako komedian oinarritutakoa da obra, Begoña Bilbaok zuzendutakoa, eta Aitziber Garmendia eta Iker Galartza dira komedia jostagarri honetako bi aktoreak. Aiora eta Pablo dira obrako protagonistak, maila soziokultural ezberdineko bi lagun. Aiora neska pinpirina da, alarguna, eta Pablo, berriz, berekoia, burugogorra eta ezkongabea da. Bi mundu ordezkatzeko dituzte gazte biek, eta hilerrian egingo dute topo.

Herriko Antzokian eskainiko dute antzezlanak, 20:30ean hasita, eta sarrean www.kutxa.es bitartez edota takilan bertan ere erosi ahal izango dira, egunean bertan.

Eskolarteko bertso txapelketako kanporaketa Elgoibar Ikastolan, gaur arratsaldean

Eskolarteko Txapelketako bosgarren ediziorako saioa eta laugarren batbatekoa jokatu dituzte gaur, eta idatzitako txapelketa eta saio didaktikoa Elgoibarren egingo dira, Elgoibar Ikastolan. Bertsopaper ariketa 15:00etatik 16:00etara izango da, eta Eskoriatzako Almen ikastolako, Elgoibar ikastolako eta Aretxabaletako Kurtzaberriko 177 ikasle hartuko dute parte. Arratsaldeko 16:30etik 17:30era, bestalde, saio didaktikoa izango da Elgoibar Ikastolako erdiko aretoan. Itziarko eta Elgoibarko taldeak arituko dira, Amaia Agirre eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariekin batera, eta aurkezle lanak, Irati Agirreazaldegi elgoibartarrak egingo ditu. Helduen batbateko saioa Mutrikuko Gazte-txean izango da, 20:30etik aurrera.

JOSU GUINEA

Haundiko entrenatzailea

“Hiru partida irabaztea behar dugu mailari eusteko”



Liga Txapelketa amaitzeko sei jardunaldi falta dira, eta Haundik badauka oraindik mailari eusteko aukerarik. Denboraldia ez zuen ondo hasi Josu Guinearen taldeak, baina azkenaldian lortu dituzten emaitzei esker, salbazioa lortzeko bidean dira. Etxean jokatu dituzten hiru partidetarako herritarrei dei egin die entrenatzaileak, denen berotasuna beharko dutelakoan.

Jokatzeari utzi eta entrenatzaile lanetan zabilta orain. Noiztik?

Orain dela hiru urte hasi nintzen, Mutrikun, eta iaiz iritsi nintzen CD Elgoibarera, Erregional mailako taldea entrenatzera. Liga amaitzeko bederatzigarren jardunaldi falta zirela, Haundi entrenatzen hasi nintzen, eta aurten hasieratik nago.

Eta, zelan doa aurten denboraldia?

Larri gabilta. Oso gaizki hasi genuen denboraldia, eta hamargarren jardunaldira arte ez genuen partidarik irabazi. Azken postuan egon ginen, baina poliki-poliki lortu genuen zulotik irtetea, eta orain ondo jokatzen gabilta. Hala ere, etxetik kanpo ez dugu oraindik partidarik irabazi, eta horri denboraldi hasierako bi hilabeteetako emaitzak gehitzen badizkiogu, egoera zaila daukagu.

Matematikoki, baina, badaukazue oraindik mailari eusteko aukerarik. Posible ikusten duzue?

Sailkapeneko azken hirugarrena lau puntura daukagu, eta berez, hiru jaitsiko liriteke mailaz, baina aurten lau izango dira seguruenik. 2B Mailatik euskal talde bat jaisten bada, Hirugarren Mailatik euskal talde bat gehiago jaitsi behar da. Eta aurten litekeena da hori gertatzea, beraz, atzetik hasita bosgarren geratu behar dugu. Orain arte horrela ibili gara, baina joan den asteburuan Portugaleteren kontra galdu ostean, atzera egin dugu. Ez da erraza izango, baina posible da. Sei partida falta dira denboraldia amaitzeko eta hiru irabaztea beharko genuke mailari eusteko. Ondo egongo litzateke zaleak Mintxetara etortzea hiru partida hauetan gu animatzera. Jende gutxi joaten da Mintxetara; futbol-zelai hotza da. Gure helburua mailari eustea izan da orain arte, eta hori lortzea nahiko genuke.

Haundiri egiten zaion kritika da Elgoibarko jokalariek gutxi dituela. Zuzendaritzaren helburuetako bat zen herriko jokalariek taldean sartzea. Zelan dago kontu hori?

Bizkaiko taldeek diru gehiago dute eta hemengo jokalariek asko joaten dira Elgoibartik Bizkaiko taldeetara. Hala ere, lortu dugu talde lehiakorra osatzea, baina zaila da taldeari jarraikotasun luzea ematea. Kluba ari da beheko taldeekin lanean Elgoibarko jokalariek prestatzeko, eta etorkizunera begira gusatuko litzaziguke herriko jokalariekin osatzea taldea, baina une honetan ezin dugu. Herriko bi edo hiru jokalariek ditugu taldean. Regional mailatik Hirugarren Mailara diferentzia handia dago, eta salto hori ematea zaila da. Jokalari batzuk debutatu dute aurten Haundirekin, baina ez da erraza. Hirugarren maila oso maila konpetitiboa da, eta asko exijitzen du.

Jokalari moduan ere ibili zinen Haundin. Zein berezitasun dauka zuretzat Haundik?

Hamar urte egin nituen Haundin, eta egia esanda, etxean moduan sentitu nintzen beti. Seriotasunez eta arauak errespetatuz, baina koadrila handi bat ginen. Jokalari asko Bizkai aldean mila euro kobratzen egon ondoren iristen dira hona, eta ezer kobratu ez arren, oso gustura egoten dira. Aldagelako giroa oso berezia da, eta horrek ematen digu aurrera jarraitzeko indarra.

Jokalari zinela lagoba Arrasate izan zenuen entrenatzaile, eta gaur egun Realean dago. Zer ikasi zenuen berarengandik?

lagoba oso hurbilekoa zen. Gauza sinpleak egiten zituen, baina aldagela primeran gidatzen zuen. Jokalari guztiak oso gustura zeuden, eta oso inplikaturik. Futbola oso argi ikusten zuen.

Elgoibarren bizi zara aspaldian, baina eibartarra zara. Zer iruditzen zaizu Eibar egiten ari den denboraldia?

Ez dago hitzik. Haundi Hirugarren Mailan dena da Eibar 2B mailan. Talde txikia eta apala. Sekulakoa egiten ari da. Nik ikusten dut Eibar Lehenengo Mailan. Igotzen bada, gainera, ekonomikoki ere aukerak handituko zaizkio. Baina ez bada igotzen ere, orain arte egin duena izugarria izan da.

Domekan jokatu dute Jose Gurrutxaga krosa, Ikastolak antolatuta

10:30ean hasiko dira lasterketak, Kalegoen plazan

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga krosa jokatu dute apirilaren 6an. Adinaren arabera banatuko dituzte ikasleak, eta guztira hamahiru lasterketa izango dira. 10:30ean hasiko dira lasterketak, eta 12:00etan jokatu da nagusien proba. Elgoibarko eta Mendaroko ikasleek hartu dezakete parte lasterketa guztietan, eta baita nagusien lasterketan ere. Azken honetan, 1997. urtea baino lehen jaiotako guztiek hartu dezakete parte. Lasterketen ostean sari-banaketa egingo dute, Kalegoen plazan.

Maiatzaren 10ean izango da Morkaikoren Eguna

Maiatzaren 10ean izango da Morkaikoren Eguna, eta aurten ere Mendi Itzulia eta Itzulitxo antolatu dituzte. Finalista Eguneko dominak ere banatuko dituzte egun horretan, eta dagoeneko hasi dira ume bakoitzak egin dituen mendien zerrendak biltzen. Apirilaren 17rako entregatu behar dira zerrendak, Morkaikoren egoitzan.

Bestalde, Herri Eskola eta Ikastolako gurasoekin elkarlanean, umeentzako Pagoe-tara irteera antolatu dute apirilaren 13rako. Umeak ezingo dira bakarrik joan, eta arduradunen batek joan behar du hauekin. 11 kilometroko ibilbidea egingo dute, 500 metroko desnibelarekin. Haurrek ikastetxeetan eman behar dute izena.

Apirilaren 12rako, berriz, Aizkorri-Aratz mendilerroko tontor ezezagunenak ezagutzeko irteera prestatu dute. 7-8 orduko ibilaldia aurreikusi dute, baina nahi duenak erraz izango du ibilbidean zehar Urbiara jaisteko. Ibilaldiaren ondoren denek elkarrekin bazkalduko dute Urbiako Fondan. Izena emateko Morkaikoren lokalera jo daiteke, edo emaila idatzi morkaiko@morkaiko.net helbidera. Irteeraren prezioa 3 eurokoa da.

Billabonako mendi martxan hartu dute parte hainbat elgoibartarrek



Euskal Herriko martxan zirkuitoko lehenengo proba jokatu zuten joan zen domekan Billabonan, eta Elgoibarko hainbat lagunek hartu zuten parte. 43 kilometroko ibilbidean 2.400 metroko desnibel positiboa gainditu behar izan zuten partaideek.

EMAITZAK

FUTBOLA

Portugalete 2 – Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 1 – Tolosa 3 (Erreg.)
Eibar 1 – Elgoibar 0 (Neskak)
Aurrera 2 – Elgoibar 1 (Jub.)
Elgoibar 3 – Tolosa 0 (Kad. A)
Elgoibar 3 – Aurrera 3 (Kad. B)
Elgoibar 3 – Aloña Mendi 0 (Lehenko Inf.)
Elgoibar 5 – Zumaiako 2 (Inf. Txiki)

ARETO FUTBOLA

Sala Quinto 2 – Concepto Egile Elg. 3 (2B.)
King-Kong Elg. 10 – Goierri 2 (Jub.)

ESKUBALOAIA

Askartza 29 – Alcorta Elg. 30 (Sen. mut.)
Urnietako 22 – Gabaz Elg. 26 (Sen. mut.)
Astigarraga Elg. 25 – Bera Bera 28 (Jub. neska.)
Eibar 27 – Berstain Elg. 22 (Jub. mut.)
Tecnifuelle Elg. 28 – Bera Bera 22 (Kad. neska.)
Hondarribi 43 – Pneumax/Txariduna Elg. 35 (Kad. mut.)
Pulpo 20 – San Roke Elg. 26 (Inf. neska.)
Legazpi 17 – Cometel Elg. 22 (Inf. neska.)
Ikus Elg. 24 – Leizaran 22 (Inf. neska.)
Urnietako 24 – Deca Elg. 27 (Inf. mut.)
Bankoa Elg. 21 – Argiki 19 (Inf. mut.)

ESKU PILOTA

Lagunak 16 – Arrasate 22 (Jub.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5
12:30 Elgoibar – Euskalduna (Jub.)
17:00 Haundi – Leioa (3. maila)

Domeka, 6

12:30 Elgoibar – Beasain (Neskak)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 6

12:00 Concepto Egile Elg. – Arnedo (2B)

SASKIBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 5

16:00 Viento Sur Elg. – Arnedo (Sen. mut.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 5

10:00 Cometel Elg. – Pulpo (Inf. neska.)

11:15 San Roke Elg. – Ereintza A (Inf. neska.)

12:30 Ikus Elg. – Aloña Mendi B (Inf. neska.)

18:00 Alcorta Elg. – Urdaneta (Sen. mut.)

19:45 Berstain Elg. – Irun (Jub. mut.)

Domeka, 6

10:00 Deca Elg. – Egia (Inf. mut.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 4

21:30 Lagunak – Legazpi (1. maila nag.)

22:15 Lagunak – Goierri (1. maila nag.)

23:00 Lagunak – Aurrera Saiaz (1. maila nag.)

Domeka, 6

12:00 Lagunak – Tartaloetxe (Jub.)

Martitzena, 8

19:00 Lagunak – Bergara (Jub.)

19:30 Lagunak – Soraluze (Nag.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Erreferentziak ditut. ☎ **648 039 187**
- Emakumea lan bila. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ **672 966 528 / 943 254 087**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ **671 948 637**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ **602 814 484**
- Emakume elgoibartarra eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Autoa daukat. ☎ **688 606 181**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **677 521 374**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. Esperientziaduna. Etxeko lanak egiteko ere prest. ☎ **697 702 158**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 102 186**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **646 464 300**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. ☎ **675 358 119**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. ☎ **692 332 871**
- Gizon arduratsua lan bila: Sukaldari laguntzaile, garbiketa lanak egiten, adinekoak zaintzen... Paperak legez ditut. ☎ **631 053 415**
- Emakumea lan bila. ☎ **631 203 287 / 622 037 598 (Wilma)**

- Emakumea lan bila: zerbitzari, dendako laguntzaile... ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
 - Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientziaduna. ☎ **690 925 929**
 - Emakumea adinekoak edo ezinduek zaintzeko prest. Gauzez ere bai, etxean zein ospitalean. Ibilgailua daukat. ☎ **602 561 469**
 - Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientziaduna. Zaharren egoitzetan lan egingo nuke. ☎ **631 203 287**
 - Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **636 977 615**
 - Emakumea lan bila. ☎ **602 186 462**
 - Emakumea lan bila. ☎ **646 464 300**
 - Gizonezkoa lan bila: igeltsero, zerbitzari, lorezain, soldatzaile... Nagusiak zaintzeko ere prest. ☎ **622 321 095 / 631 506 108**
 - Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zaintzeko nituzke. Erizain laguntzaile titulua dut. Interna edo orduka. ☎ **680 226 039**
 - Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **646 931 162**
 - Pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Egun erdiz, orduka edo asteburuetan. Interna egoteko ere prest. ☎ **680 121 252**
- ESKAINNTZA**
- Sukaldari laguntzailea behar dugu, asteburuetan taberna lan egiteko. ☎ **678 327 265**

ETXEBIZITZAK

- Klase partikularrak ematen ditut, LH5-6 eta DBH1-2 mailetan. Esperientziaduna. Eki ordenagailu programarekin, euskaraz zein gaztelaniaz. ☎ **699 477 611**
- Bi logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **636 581 194 (María)**
- Logela bakarreko etxea alokatzen dut, Errosario kalean. ☎ **630 374 124 (Naiara)**

PARTIKULARRAK

- Gazte bat behar da, DBH1 mailako ikasle bati klase partikularrak emateko. ☎ **943 756 188 (19:00etatik aurrera)**

GARAJEAK

- Garaje handia eta itxia alokatu edo salduko nuke. Jausoron dago. ☎ **652 727 631**
- Garaje marraduna alokatzen dut, Lekuederren. ☎ **660 042 159**

KINTOAK

- 1964an jaiotako mendarorrek bazkaria egingo dute ekainaren 21ean, Landa jatetxean. Iluntzean DJ saioa. Interesatuak 80 euro sartu behar dituzte, Kutxabankeko kontu honetan: 2095 5054 00 9113698813. Azken eguna, maiatzak 31. ☎ **638 233 326 (Belen) / 629 258 172 (Juanmi), 1964mendaro@gmail.com**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Urtebetez ezohiko kuota bat ordaintzen jardun dugu fatxada berritzeko. Bukatu berri dute obra, eta enpresari zor geniona ordaindu ostean, presidenteak aurkeztu dizkigu kontuak eta diru asko sobratu dela ikusi dugu. Bizilagun batzuek diru hortatik bakoitzari dagokiguna bueltatzeko eskatu dugu, baina beste batzuek nahiago dute diru hori poltsan laga. Aurtengo kuota ordaintzeari uko egin eta niri dagokidana poltsa horretatik hartzeko eska diezaieket?

Batzarrari dagokio diru horrekin zer egin erabakitzea. Erabaki bat hartzeko, baina, bizilagunen gehiengoaren onspena behar da. Batzarrak erabakitzen duenak bizilagun guztiei eragiten die, beraz bizilagun batek ezingo du bere kabuz dagokion partea exijitu.

Gomendioa: Kuota bat ordaintzeari uko egiten dion bizilaguna zordun bihurtzen da, eta beraz batzarretara agertu eta bere iritzia emateko aukera izango du, baina ez du botorik izango. Bizilagun batek pentsatzen badu, baina, batzarrean erabaki dutenak ez duela legea errespetatzen eta bere eskubideak urratzen direla, beti izango ditu beste bide batzuk bere interesak defendatzeko.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Aimar**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna! Muxu asko familiako guztien partez.



• Zorionak, **Luna**, hilaren 3an 3 urte egin zenuelako. Muxu potolo bat familiakoen, eta bereziki, Eliaren partez.



• Zorionak **Alaine**, astelehenean zure eguna izango delako. Lau muxu potolo, sorgin txiki!



• Zorionak **Xabier Arriolari**, bere 10. urtebetetzean, eta patxo handi bat Oierren partez.



• Zorionak, **Noral** Datorren astelehenean 6 urte! Patxo handi-handi bat etxekoon, eta bereziki, Iratiren partez.




• Zorionak, **Leirel** Zortzi patxo potolo, etxeko denon partez. 362 egun barru, 9!



• Zorionak, **Judith**, 13 urte egin dituzulako gaur. Ondo pasa! Aita eta amaren partez, urte askotarako.



• Zorionak, **Colin**, atzo 10 urte bete zenuelako. Muxu asko gurasoen partez. Asko maite zaitugu.



• Zorionak, **Junes eta Einer**, 4 eta 7 urte bete dituzuelako. Muxu erraldoi bana, etxeko guztien partez.



• Aste honetan ditugu bi urtebetetze, aittitta ta izeko, ostegun ta igande. Bertso bat botatzea ez zaigu kostatzen, zorionak esanaz, etxeko partez. Egunderra izan, merezi duzue, ta ospakizunerako gu hortxe prest gaude.

Zoriondu ezazu **BARREN**en!

PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€

Argazki bikoitza:

7€

Hirukoitza:

9€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

3'50€

Argazki bikoitza:

6€

Hirukoitza:

8€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

12€

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENEKO bulegora,

edo barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.



ESKERTZA

CELSO BLANCO SESTO

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*



2014ko martxoaren 30ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

4 barixakua

Bideo-forum

21:30 'Cosas que diría con sólo mirarla'

Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

5 zapatua

Ingeniaritza duala

11:00 Informazio saioa

Ingeniaritza dualari buruzko informazioa eskainiko dute IMHn.

6 domeka

Krosa

10:30 Jose Gurrutxaga krosa
Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan hasiko dira lasterketa guztiak.

Musika

12:30 Verdiren gala

Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, Herriko Antzokian. Sarrera, doan.

7 astelehena

Bilera

19:00 Gure Esku Dago
Elgoibarko elkarteekin bilera irekia egingo dute, Kultur Etxean.

11 barixakua

Ipuinkontalaria

17:30 'Rosa, ipuin bat kontaidazu'

HH2tik LH2ra arteko umeentzako. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

Antzerkia

20:30 Ondoko hilobiko tipoa

Txalo produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

Aste Santuko ekintzetan
izen emateko azken eguna
apirilak 10, osteguna.



Apirilaren 7an, astelehenean,
FIFA 2014 txapelketa,
17:30etik 19:00etara

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
4 Ibañez 5 Barrenetxea 6 Barrenetxea 7 Etxeberria 8 Fernandez 9 Yudego 10 Zabaleta	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA


«8 apellidos vascos»

4, barixakua: 22:15
5: 19:00/22:15* (VOS)
6, domeka: 19:00/21:30
7, astelehena: 21:30



«Las aventuras de Peabody y Sherman»

6, domeka: 16:30



«A propósito de Llewyn Davis» (Ongarri zinekluba)

10, eguena: 21:30



herritarrekin
martxan en marcha

 *Gipuzkoa*
BERRIA

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU
ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean
Mugi/Lurraldebus txartela
kargatzeko 20 euroko bonoak
zotz egingo ditugu.

 *Gipuzkoa*
BERRIA

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

Apirilaren 10ean, 18:00etan, Elgoibarko Kultur Etxean.

HARTU ZANK!

EGI EGUNA 2014 ELGOIBAR

APIRILAK 12

11:00 - IKURRINAREN IGOERA [Batzokian]

11:15 - OMENALDIA [Kalegoen plazan]

12:00 - EKITALDI NAZIONALA

Euzko Gaztedi
Izaskun Bilbao
Andoni Ortuzar

14:30 - HERRI BAZKARIA [Parokiako arkupean]
Bertoak eta trikitixa

18:00 - PELOTA PARTIDA [Kalegoen frontoian]

Pabai Eugi Sebastian Gonzalez
Iker Txumuka Asier Lizarralde

[arratsaldean zehar] Puzgarriak

19:00 - TRIKI-POTEOA

21:00 - 22:00 - DISKOFESTA (1 zatia)
[Maalako parkean]

22:00 - AFARI-LUNTXA

23:00 - DISKOFESTA (2 zatia)
Oihan Vega (Gaztea)

